

Hizlariengan ote dago gakoa? Ez ote tamainarik?

Gaiek ez al dute erakarmenik?

Aitor dezagun: publikoa erakartzea ez dugu lortzen, garai batean bezala. Joanak joan. Hitzaldien urre-aroa joana da. Tokitan daude garai bateko ametsak, proiektuak eta egitarauak! Hitzaldi solteetatik astealdietara igaro ginen, gero hamabostaldietara eta behin baino gehiagotan hilabetealdi eta ikastaroetara. Herri mailako Unibertsitate txikia egiteko ametsik ez zen falta tartean.

1975 aldean hasita, urte horietan, beheraldi izugarria izan zuten herrietako kultur hitzaldiek. Hitzaldi eta mahainguru politikoak nagusitu ziren. Gerora, susperralditxo bat izan dute atzera hitzaldi kulturalak, baina, ikusten denez, nahikoa artifiziala: hitzaldiak ugaltu dira, baina ez publikoa.

Gaur gauzak dauden bezala, hitzaldien sistema honi degradatzearen arriskua ikusten diot. Alegia, «kunplizearekin» konformatzea protagonistak (antolatzaileak zein hizlariak): konpromisoa bete eta kitto.

Eta kritika egiten hasita, programazio gutxiegi sumatzen dut nik: erakunde, elkarte eta talde askok urtean zeharko egitaraurik gabe jotzen dute, urtez-urte burutuz joateko plangintza orokorrik gabe, hitzaldi edo astealdi kultural horiekin zer lortu nahi den argiegi jakin gabe. Ez programaziorik, ez koordinaziorik dago, zoritxarrez.

Galdera-sail bat egiteko asmotan hasi naiz idazten, eta konurtatzeke kritikara lerratu naiz. Berdin dio. Baina berriz galdeztzen dut: Zer gertatzen da hitzaldiekin? Egoeraren analisi eta diagnosi bat egin beharko genukeela iruditzen zait. Uste dut, galdetzekoa dela zein eginkizun betetzen duten gaur kultur astealdiek, hitzaldiek. Zertarako antolatzen diren. Zer gai erabiltzen den. Eta abar.

Animatzen al da inor? ■ *Joan Altzibar.*

## «Consumiciones en autóctono»

Nork esan zuen Espainian gure arazo politikoak bakarrik aipatzen dituztela? Azken aldi honetan ahalegin handia egiten ari dira komunikabide espainolak gure errealitatea bere osotasunean ezagutzera emateko: errealitate politikoa, soziala, kulturala, linguistikoa.

Ahalegin horrek euskalduntzearen berri ere ematen du. Hona ekainaren lehenean *El Alcázar* delakoak eman zuena, Fernando Vizcaíno Casas-en eskutik:

### CURSO DE IDIOMAS

Aprenda *euskera* en diez minutos. Con tal encomiable intención, el Ayuntamiento del Noble Valle de Llodio (*Laudisko Maran Nubigaren Udala* [sic]) ha comenzado un programa de *reuskaldunización* [sic, berea] de las *funciones comunicativas más corrientes utilizadas en los bares de la localidad*, para animar a la clientela a pedir sus consumiciones en autóctono.

No parece demasiado difícil en la mayoría de los casos, por lo que les incluyo las palabras en vascuence, confiando en que sean capaces de entenderlas. Ahí van: *anisa, konaka, boska, patxarana, ron, ginebra, whiskey, kubalibrea, gintonik, tabakoak, koantró*.

Curiosamente, falta en el útil vocabulario la traducción al euskera de *vino* y de *café*. No será porque allí no se consuman...».

Noski, Euskal Herriko errealitatearen berri emateko ahaleginak eskertzekoak dira beti ere. ■ *Joanes Lekerika*.

## ETB: ez dago girorik

Giro txarra dago ETBn. Lan-giroa txarra, eta bestelakoa ere txarra. Grebak, dimisioak, kanporaketak. Eta zapi zikinak kanpoan. Gaiztotuz doala ematen du, gainera; noiz eta non amaituko den ez jakin. Dagoeneko nahikoa urrun joana da. Etena ez dago urruti, jadanik sortua ez bada.

Zer da gertatzen dena? Zein da arazoa: ekonomikoa?, laboralara?, politikoa?, hizkuntzazkoa?, harremanak? Denetik egon daiteke. Eta hala omen dago, diotenez. Baina, egia esan, kanpora agertu, funtsezko arazoa bera baino gehiago agertu dira salaketak, elkarrir egindako deskalifikazioak. Intransigentzia, inkompetentzia salatzen diote langileek Amatiño-Areizaga bikoteari. Eta hauek haiei lan-eskarmentu gabeko jende gaztegia izatea, umegorriak izatea.

Zer dagoen hemen jokoan ezin daiteke hitz batez erabaki, iruditzen zaidanez. Langileen argumentuetan lan-arazoak nabarmentzen dira, arazo ekonomikoa zein organizaziozkoak, eta batez ere azken hauek: hala nola, ordutegia, lan-banaketa,